



Euskal Jaietan ohitura zaharrak mantentzeko ahaleginean herritar guztiok zuen janzkera zaintzera gonbidatzen zaituztegu.

Ondo pasa jaiak!

Antolatzaileak



Zareuzko Udala - Turismo Bulegoa

Laguntzaileak

AEK - Alproja Taldea - Moxian eta Etxebeltz Bertso Eskolak
Euskal Herrian Euskaraz - Euskara Batzordea - Goiztarrak
Herriko Gastronimi Elkarteak - Inuntzo Trikitilari Eskola
Iratzarri Dantza Taldea - Mollari Dantza Taldea
Ondaurtz Kultur Taldea - Gurekin Jai Batzordea

2011
iraila

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30		

Nondik datorren ez dakien herria galdua dago. Zorionez, Zareutzen ongi dakigu jakin nondik gatozen eta, bereziki, nora goazen. Ezagutzen ditugu geure sustraiak eta, baita nora heldu nahi dugun ere.

Euskara da euskaldun egiten gaituena. Hala dio esarak eta hala uste dugu zaraustar askok. Euskara geure mundurako atea dela, euskara geure izaeraren ikurra dela. Gurasoek seme-alabei eta hauek hurrengoel helarazi diete belaunaldiz-belaunaldi, eta gaur eta hemen geure artean adierazteko modu ez ezik, geure herri eta jendearen nortasun adierazle da.

Irailaren 1etik 9ra ospatuko diren Euskal Jaiak zaraustarren bizitasunaren erakusgarri izatea nahi dugu. Horrela, Euskal Herriko kultur aberastasunaren hainbat adibide izango ditugu astean zehar eta Euskal Jai egunean festa erraldi batekin itxiko dugu Turismo Saitetik prestatuturiko egitarau oparoa.

Maialen Lujanbiok abestu bezala, euskaratik eta euskaraz bizitzea dugu helburu. Horregatik, jaiak, lagun zaharrek in egon, berriak egin edota maitemintzeko aukera ezin hobeak direla jakinik, lotura hauek euskaraz egiteko gonbitea luzatzen dizuegu.

Musika, dantza, bertso, antzerki eta karrozak geure izaera erakusteko aitzakia besterik ez dira. Eta hori ondo dakite, egun horretan Zareutza hurbildu eta parte hartuko duten guztiek. Ondo dakite, hizkuntza, euskara, dela herri honen bihotza.

Ez nuke agur hau, egitaraua egiten laguntzen duzen elkarte, pertsona edota eragile guztiei eskerrak eman gabe amaitu nahi. Zuek gabe ezinezkoa litzateke zaraustarrentzat urteroko ezinbesteko zita eta atzeritarrentzat jai magikoa dena antolatzea.

Jantzi alkandora zuriak eta abarkak eta lotu euskarari eta euskaldunei.

Karmele Alberdi
Turismo zinegotzia



	Ikusizkuna	Helduak	Gazte Txartela
Irailak 1	Itzaletik argira bideak badira	doan	doan
Irailak 2	Bertsolari Gazteen Tx.	3€	2€
Irailak 6	Sosegua	5€	3€
Irailak 7	Trikitilari txapelketa	3€	2€

Txartelak salgai Turismo Bulegoan.

Abuztuak 25 eta 26	Bertso afariak	15€
--------------------	----------------	-----

Txartelak salgai Mendizabal Kinkiladenda eta Turismo Bulegoan.



abuztuak

- 25

osteguna

Arratsaldeko 20,30ean, bertso afaria, Lizardi Bertsolari Gazteen XXXV. Txapelketaren kanporaketa saioa.
- 26

ostirala

Arratsaldeko 20,30ean, bertso afaria, Lizardi Bertsolari Gazteen XXXV. Txapelketaren kanporaketa saioa.

irailak

- 1

osteguna

Gaueko 22,00etan, Zinema pilotalekuan, "Itzaletik argira bideak badira" ekitaldia.

Parte-hartzaileak: Oreak TX, Jose Ignacio Elias, Imanol Epelde, Alproja taldea, Erlantz Allur eta bere taldea, herriko bertsolari gazteak, Iratzarri dantza taldea, Montetxio korua, Mikel Erguin, herriko Ariola taldea, Urki Muguruza eta herriko beste zenbait laguntzaile.
- 2

ostirala

Arratsaldeko 19,00etan, Musika plazan, "Bikote Gazteen Dantza Txapelketa".

Gaueko 22,00etan, Zinema pilotalekuan, "Bertsolari Gazteen XXXV. Txapelketa - Lizardi Saria". Txapelketa barnean "XXVII. Basarri Saria" Bertso Paper Lehiaketaren sari anaketa.
- 3

larunbata

Goizeko 10,00etan, Musika plazatik irtenda "Euskararen aldeko XVI. Lasterketa". (Izen ematea 9,30ean).

Goizeko 11,30ean, Musika plazan, "XXIII. Aurreku Txapelketa" eta "IV. Soinu Zahar Txapelketa".

Eguerdiko 12,00etan, Lege Zaharren enparantzan, "Ardoa eta gazta Dastaketa-Salmenta".

Arratsaldeko 14,30ean, Musika plazan, "XXVII. Bazkari Herrikoa".

Arratsaldeko 18,30ean, Musika plazatik "Kontzertu ibiltaria".

Arratsaldeko 19,30ean, Musika plazan, "Binakako Dantza Txapelketa".

4

igandea

"Haurren Euskal Jai Eguna"

- Goizeko 10,30ean,** Munoan, dantzarien bilkura.

Goizeko 11,30ean, Munoan, Alkate Txikiaren ongi etorria.

Ondoren, dantzariak kalez kale.

Eguerdian, buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.

Aldi berean, Lege Zaharren enparantzan talogintza eta eskulan tailerra.

Arratsaldeko 13,30ean, Munoan, haurren banaketa bazkarirako. (Dantzariak zuen famili artean bazkaltzera eraman nahi badituzue, izena eman Mendizabal kinkiladendan edo San Pelaioako estankoen).

Arratsaldeko 17,30ean, Musika plazatik Iñurritzara kalejira, buruhandi, erraldoi, Tximeleta txarangarekin eta trikitilariekin.

Arratsaldeko 18,00etan, Iñurritzan, dantzari txikien saioa.

Aldi berean, ikastolako kirol zelaian, Gorritiren poneyak.

Ondoren, Iñurritzan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan ikuskizuna.

Arratsaldeko 20,00etan, kalejira Iñurritzatik Musika plazara.
- 6

asteartea

Gaueko 22,00etan, Zinema pilotalekuan, Garikoitz Mendizabal txistulariaren eskutik, bere banda eta Kepa Junkeraren laguntzaz, "Sosegua" ikuskizuna.
- 7

asteazkena

Gaueko 22,00etan, Zinema pilotalekuan, "Trikilari Gazteen XXXI. Txapelketa".
- 8

osteguna

Arratsaldeko 19,00etan, Musika plazan, dantza saioa.

Arratsaldeko 19,30ean, Frantziskotarren elizan, Zarauzko Abesbatzak meza eta salbea abestuko ditu.

9

ostirala

"Euskal Jai Eguna"

- Goizeko 7,00etan,** goiz eresia.

Goizeko 8,00etan, Goiztarrek taldearen irteera. Aintzinako ohitura berreskuratzuz, goizean kalez kale garai hartako pertsonaia irudikatuko dituzte.

Goizeko 8,30ean, kalez kale txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak, eta Iturengo tuntuurroak.

Goizeko 10,30ean, Frantziskotarren elizan, Herri Meza.

Meza ondoren, Frontoi txikian, Goiztarrek taldearen eskutik pilota partidua, herri kirolak eta bertsolariak.

Goizeko 11,30ean, Alproja taldearen irteera. Azpeiti bidea, Kale Nagusia, Musika plaza (geldialdia), Azara kalea, Nafarroa kalea eta Munoa.

Jarraian, eguerdiko 12,00etan, Munoan, antzezina, "Berriz bederatz".

Eguerdiko 12,30ean, Parrokia kirolak atarako dira, jarraian San Inazio kalea, Bizkaia kalea eta Foruen kaleak, Lege Zaharren enparantzan geldituz.

Eguerdian, Musika plazan, erromeria trikitilariekin, txistulariekin eta dultzaineroekin.

Arratsaldeko 14,00etan, Musika plazan, Lizarrako Larrain dantza herrikoa dultzaineroekin.

Arratsaldeko 17,30ean, Musika plazatik Iñurritzara kalejira, karroza, trikitilari, dultzainero eta txistulariekin.

Ondoren, Iñurritza zelaian erromeria.

Arratsaldeko 19,15ean, Inurritzan, Lizarrako Larrain dantza herrikoa dultzaineroekin.

Arratsaldeko 20,30ean, kalejira Iñurritzatik Musika plazara.

Gaueko 23,00etatik aurrera, Musika plazan, erromeria trikitilariekin.

Gurekin Jai batzordeko egitaraua

irailak

- 2

ostirala

Arratsaldeko 20,00etan, Alde zaharreko autobus geltokitik preso eta iheslarien aldeko manifestazioa.

Arratsaldeko 20,30ean, txosnen irekiera.

Gaueko 21,00etan, kantu afaria.

Gaueko 23,00etan, Ain1 taldearen kontzertua, "Emakumeok Plazara" ekimenaren barruan.
- 3

larunbata

Egunez, EHE-k antolatutako egitarauarekin egingo dugu bat.

Arratsaldeko 20,00etan, txosnen irekiera.

Gaueko 23,00etan, 3gabe2 taldearen kontzertua.
- 9

ostirala

Arratsaldeko 14,00etan, jolasak eta karro lehiaketa txosnetan.

Gaueko 23,00etan, erromeria Ingo al deu? taldearekin.

